

Txirrita ospetsua

Joxe Manuel Lujanbio Retegi, «Txirrita» Hernaniko

Ereñozu bailaran jaio zen joan zen mendeko

1860. urtean. Alfer eta parradazale fama zuen.

Bertsolari handia, txiste kontalari aparta eta edozein

gertaera kontatzeko grazia berezia zuena.

Sagardotegian baino hobeto non konta bere historiak?

BERTSOLARI HANDIA

KARMELI ELIZARAN

JOXE MANUEL LUJANBIO RETEGI, TXIRRITARI BURUZ ASKO HITZEGIN DA ETA IDATZI DA. Nork esan dezake Joxe Manuelen bizitza alfer batena izan zenik? Ofizioz argina zen, baina ez omen zuen zaletasun handirik eta xox batzuk lortu orduko lana bere horretan uzteko erreparorik ere ez.

Garai haietako tabernak sagardotegiak ziren. Zaharrak kontatzen dutenez hiruzpalau egun pasatzen zituzten sagardotegitik irten gabe. Jan, edan eta lo bertan egiten zuenetako bat, Txirrita zen. Apustuak ere maiz egiten ziren. Honietako bat kontatuko dugu.

Gertaera hau Jose Etxeberria oizartzuarrak kontatua da.

«Arkiri baserrian sagardo onak egiten ziran. Sagar guztiak onak eta sagardo onak. Bazkaltzeko ordu bete izaten genduen, ta denbora gutxi. Arrantxua galtzea zerbait iruditzen. Galduko zuen, bai, arek, dirua izan ezker. Baina etzuen dirunik eta lanean ari bear. Onela esan zigun:

«Garrapoi bat sagardo ekarri bear zendukete Arkiritik.

«Emendikan Arkiritira joan da etorri, eztugu ordu batean buelta egingo.

«Zuen edadean? Demonio! Orainbix ere egingo nizek, orainbix ere!

Bai, pizkorra zegoen ta! Orra ba: joan gihan Jose Pagoaundiko difuntua, Santi difuntua eta irurak. Garrapoi aundi bat bete sagardo aru genduen, ta zer balioko zuen? Bi peziakoa geienaz ere. Etorri gihan, ta Txirrita ori lanean asia zan, gu etortzerako. Deitu genion:

«Txirrita!

«Zer?

«Sagardoa ekarri dugu!

Arkaitz-zulo batean utzia genduen.

«Sagardoa ekarri al dezue?

«Bai!

«Bastante egin dezue! Nik ere probatu bear diat bittipin!

Txirrita ori eman genion ta, konel, betetzeko berriz. Berriz ere bete genion ta iru edo lau edan zituen, ta andikan istantean betetzeko berriz. Beztu egingo zala ta joateko aguro, edan egin bear

genduela! Ustu genduen arte etzan pakerik: beztu egingo zala sagardoa! Beztu egingo zala ta edan egin bear zala! Ba, ustu genduen! Erdia berak edango zuen noski! O, gizagajoa! Arek dirua izan ezkerro...»

...



SARASOLA
SAGARDOGILLEA

Zumalakarri Baserria

ANOEJA'N

Tfnoa. 65 26 22

Sagardotegia

ASTEASU'N

Tfnoa. 69 02 83



SAGARDOTEGIA

OTEGUI

Solla-Enea Baserria
Zabaleta Auzoa
Tel. 36 50 29

LASARTE - ORIA
(Guipúzcoa)

LARRARTE

berritua,
aurten zabalik


Sagardotegia

Urte osoan irekia.

Muñagorri baserria • Santiago Mendi • ☎ 55 56 47 / (908) 57 74 73 • ASTIGARRAGA



IARRITY
SAGARDOTEGIA



Abierto toda la semana, excepto lunes y martes
Bº de ARROTEGUI, LEZAMA - AMURRIO (ARABA)
TFNO.: 672 39 44 (Encargos, de 17 h. - 19 h.)